


INKAK

Gidoia

195 hitz

Peru aldera joan naiz oporrek pasatzera eta argazki batzuk atera ditut. Hemen duzue horietako bat: bertako herritarrak oso pozik daude baina ni kezkatu geratu naiz paisaian dauden gauza batzuk argazkian agertu ez direlako. Lagunduko didazu falta dena margotzen?



Zeruan bi **hodei** ikusten dira, baina badago hirugarren bat, eguzkiaren atzean, oso handia, erdiko tenpluraino iristen dena. Marraz ezazu, mesedez!

Eskuinaldean dagoen tenpluak **bost leiho** ditu: bi alde borobilean eta besteak lauki zuzenean. Jar itzazu!

Bi tenpluen artean **txoriak** daude: zortzi zeuden hasieran baina hiruk alde egin dute: margotu gelditu direnak!

Erdiko tenpluaren azpian dagoen etxolatik jendea dagoen tokiraino **bide** zabala dago. Marraztuko duzu?

Oraintxe marraztu duzun bide horretatik **ume bat** dator. Umeak **saski bat** dakar eskuan. Margotu biak, umea eta saskia.

Ezkerraldeko zuhaitzen ondoan sei **lore**

zeuden baina gaur erdia hartu dute sorta bat osatzeko: jarriko dituzu utzi dituztenak?

Atzean dagoen gizona biboteduna da eta hemen aurrean dagoena betaurrekoduna baina... non gelditu dira, ba, beren **bibotea** eta **betaurrekoak**? Jar iezazkiezu, mesedez!

Amaren bizkarrean dagoen mutikoa txakurrari begira dago. Badakizu non jarri behar duzun **txakur** txiki hori? Arrainen aurrean.

Txakurra eta aurrean dagoen gizonaren artean **harriak** daude: sei, hain zuzen ere.

Orain bai! Orain argazkia ongi dago!

Marraskia *Euskara 6 Eleketan* liburutik hartuta
Testua: Egi Cotanda